

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2006KO ABENDUAREN HOGEITABEDERATZIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta seiko abenduaren hogeitabederatzian, arratsaldeko sei terdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan (Foronda Kultur Etxean), Udal Plenoa eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Mikel GARATE GOLMAIO jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Cristina FORCADA UNANUE andrea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- 2007RAKO TAXI ZERBITZUAREN PREZIOAK ONARTZEA BIDEZKO BADA.

Zera adierazten da, Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak ontzat eman dituela eskualdeko taxi zerbitzuaren 2007ko tarifak.

Proposamenak, Hazienda Batzordearen aldeko erizpena du eta indarrean dauden hiri barruko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %4,5 igotzea suposatzen du.

Beraz tarifak honela geldituko lirateke:

TARIFEN PROPOSAMENA 2006

1. TARIFA *			2. TARIFA **		
Abiasaria	Ibilitako kilometroa	Itxaronaldia orduko	Abiasaria	Ibilitako Kilometroa	Itxaronaldia , orduko
2,9051	0.9101	17.3888	2.9051	1.4515	27.3268

- Tarifa hau aplikatuko da lanegunetan, 07:00etatik 22:00etara.
- Tarifa hau aplikatuko da egunero 22:00etatik 07:00etara. Tarifa hau aplikatuko da, baita ere, igandetan eta jaiegunetan (Autonomia Erkidegoko eta Toki araudiek ezarritakoaren arabera) 07:00etatik 22etara.

Bozketa planteatuta, Udaltzako eskubidez osatzen duten hamahiru zinegotzietatik, bilerara bertaraturiko hamabi zinegotzien aho batasunean ONARTU DUTE:

LEHENENGOA: 2007rako Auto taxi zerbitzuaren tarifak eguneratzea azalpenen zatian jasotzen den proposamenaren arabera.

BIGARRENGOA: Akordio honen ziurtapena Urola Kostako Mankomunitateari igortzea.

2.- 2007KO AURREKONTU OROKORRAREN ONARPENA BIDEZKO BADA.

Hazienda Batzorde buruak 2007ko aurrekontu orokorraren onarpena hirugarren puntuarekin loturik doala adierazten du. Izan ere 2007ko aurrekontuak 2007ko lehenengo kreditu aldaketatik datorren kreditua behar du, eta horregatik sartzen da Pleno honetako gai zerrendan.

Aurrekontuen izapidak hilabete terdi iraun du eta denbora horretan batzordean aztertzeko, eztabaidatzeko eta emendakinak aurkezteko aukera egon da.

Hala ere, aurrekontuetako memoriaren bigarren eta hirugarren puntuak azpimarratzen ditu azalpenak ulergarriagoak izan daitezzen.

ZUMAIAKO UDALA

2007.urteko Udal Aurrekontua

MEMORIA

1.- Aurrekariak

2006ko irailaren 28ko Gobernu Batzordeak 2007. urterako Aurrekontuak egiteko Ildo Nagusiak onartu zituen. Dokumentu honek datorren urteko Aurrekontuak egiteko premisak jasotzen ditu, finantz eszenategia eta egutegia:

1.- “Aurrekontuen eszenategia”k, 2007. urtean Zumaiaiko Udalak bere politika publikoak aurrera eramateko izango duen dirua ezagutzera ematen du. Eszenategi hau ondorengo baldintzekin egin da:

1.1.- Sarrerren kalkulua (1,2 eta 3. atalak) 2006ko urriaren 26an onartutako 2007. urterako ordenantza fiskaletan proposatu ziren zergen, tasen, prezio publikoen eta beste eskubide publikoei dagozkien tipoak eta tarifak aplikatuta egin da.

1.2.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kalkulua (2. kapituloa), aurrirakusten diren eraikuntzen arabera egiten da. (Puntanuetan eta Ardantzako promozioak,...)

1.3.- Udal Finantzaketarako Foru Fondoan, 2006ko aurrekontuarekin alderatuta, %3,5eko igoera aurrirakusten da.

1.4.- Inbertsioen besterenganaketa, Zumaia Lantzenen bitartez, etxebizitzetarako eta industrirako partzelen salmentari dagokio, 2007rako onartutako ekintzen egitasmoan jasotzen den moduan.

1.5.- Kapitalezko sarrerak, VII kapituloan, alde batetik Eusko Jaurlaritzatik datozen dirulaguntzak jasotzen dira, Izartu II programari dagozkionak, PERCO-ren 2. faserako dirulaguntza eta Alondegiairen berrikuntzarako eta beste aldetik, Urkome elkartetik jasotzen den ekarpena.

1.6.- Zorpetze garbia, hau da, Sarreren aurrekontuaren 9. kapituloaren (Finantza Pasiboak) eta Gastuen Aurrekontuaren 9. kapituloaren (Finantza Pasiboak) arteko aldea 500.000 eurotako da. Mailegua eskatzeko erabakia eta kopurua, 2006ko Aurrekontuaren likidazioa egin ondoren hartuko da eta betiere Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legeak agindutakoaren arabera.

1.7.- Beraz Aurrekontuaren defizita 675.000 eurotako da.

1.8.- Udal zorraren interesak ordaintzeko kopuruak, sinatutako kontratuen baldintzen arabera izango dira, finantza merkatuaren egoera eta sortuko diren finantza beharren arabera, hasierako kopurua 11.000 eurotan finkatuta.

2.- Pertsonalaren urteko ordainketa osoak, negoziazio kolektibotik ondorioztatutakoak izango dira.

3.- Beste gastu arruntekin, (2 eta 4 kapituluak), irizpide orokorra jarraituko da, guztira ez dute %4ko igoera izango.

4.- Udal Entitate Publikoen eta Organismo Autonomoen eragiketa arruntak estaltzeko zuzenduta dauden transferentziak, ildo hauetan 1 eta 2 kapituluentzako ezarri diren arauen arabera aurrikusiko dira. Urola Kosta Udal Elkartearekin lotuta dauden gastuak, mankomunitate honen aurrekontuen biltzarrean azaltzen diren beharretara egokitu beharko dira.

5.- Inbertsioei eta Kapitalezko Transferentziei dagokienez, (6 eta 7 kapituluak), kreditu konpromisuak eta inbertsio plan ezberdinetan aurrikusten diren urteko kopuruak hartuko dira kontuan, eta beharrezkoa bada, aurrikusten den bilakaerara egokitu beharko dira.

6.- Pertsonalari ematen zaizkion aurrerakinak (8. kapitulua), bat etorriko dira aurrerakin hauen itzulketaren kopuruarekin.

7.- Ildo nagusi hauetan jasotzen diren puntuetan eman daitekeen edozein gehikuntza gehigarria, dagokion Sailak edota Elkarteak justifikatu beharko du.

8.- 2007rako aurrikusten den edozein ekintza berriak, nahiz arrunta nahiz kapitalezkoa, aparteko justifikazio eta analisi bat beharko du.

9.- Inbertsio berriak proposatzerakoan, Departamentuak, beraien gestio errealaren gaitasuna kontuan hartu beharko du, beraien aurrekontuen exekuzio maila kontuan izanik (O Fasea), eta abian dauden inbertsioak urte bat baino gehiagotan banatzeko aukera.

2.- Aurrekontu Orokorren edukia

Zumaiako Udaleko Aurrekontu Bateratua 2007. urterako, bai gastu egoerari dagokionez bai sarreraren egoerari, 22.257.284 eurotako da, dokumentu honen 2. atalean jasotzen den laburpenaren arabera.

Zumaiako Udaletxeko Aurrekontuen gastu egoera, ordainketa kredituei dagokionez, 11.113.879 eurotako da eta konpromisuzko kredituei dagokionez, 1.132.763 eurotako da. 2007. urtearen ondorengo konpromisuen azalpena konpromisuzko kredituen eranskinean zehazten da. Zumaiako udaletxeko Aurrekontuen sarreraren egoera, 11.113.879 eurotako da, 675.000 eurotako aurrekontu defizita barne duelarik.

Zumaiako Udalak 1.475.000 eurotako altxortegi gerakina dauka eta 2005-2011 Plan Bereziarekin lotu nahi du. Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak ez du aukerarik ematen gerakin hau hasierako aurrekontuen finantziazio moduan erabiltzeko. Beraz, 2007ko Aurrekontu hauen onarpenaren ondoren 2007ko lehenengo kreditu aldaketa egiteko proposamena egingo da, kreditu gehigarrien moduan, inbertsiontako partidak 1.475.000 eurotan gehitzeko eta konpromisuzko kredituak ere 2.785.100 eurotan igotzeko. Kreditu aldaketa egiteko proposamena, memoria honetako 8.D atalean jasotzen da eta konpromisuzko kredituen aldaketa, Aurrekontu hauen 10. dokumentuan "Konpromisuzko kredituen egoera-orrian" jasotzen da.

“San Juan Egoitza” Udal Organismo Autonomoaren Aurrekontuen gastuen eta sarrerren egoera, 1.071.571 eurotakoa da.

“Musika Patronatua” Udal Organismo Autonomoaren Aurrekontuen gastuen eta sarrerren egoera, 113.622 eurotakoa da.

“Zumaia Lantzen E.A.” Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontuen gastuen eta sarrerren egoera, 10.713.112 eurotakoa da.

3.- Ekonomi egoera

Gipuzkoako Lurralde historikoko udalen ogasunen kontestu orokorrean, Zumaiaiko Udal honen ogasunaren ekonomi egoera **oso ona** dela esan dezakegu. Azkenengo urte hauetan onartu diren aurrekontuen ezaugarriak izan dira, gastuen zorroztasuna eta sarrera arruntak pixkanaka finkatzen joatea. Honek aurrezki garbiaren igoera jarraiki bat sortu du, inbertsioak finantzatzeko diru iturri nagusi bat sortuz eta zorpetzea eta maileguen saldu bizia jeitsiaz.

4.- Finantza egoera

Eskueran dauden baliabideen zergabilketaren zalutasun eta aldizkakotasunak gastuak puntualki ordaintzeko aukera ematen du; hori dela eta, urtean zehar Diruzaintzan gerta daitezkeen arazo eta gorabeherak ez direla izango pentsa dezakegu. Egoera honek, dirua banku edo aurrezki kutxetan ezartzeko aukera emango du finantza sarrerak lortu ahal izateko.

5.- Ondare egoera

Udalak utzitako ondasuna, Udal Organismo Autonomo Musika Patronatua eta San Juan Egoitzari adskribaturiko ondarea bakarrik da.

Ekitaldi honetan aurrikusten diren aldaketak, inbertsio gastuetatik bakarrik datoz, gastuetako VI. atalean zehazten direnak.

6.- Aurrekontua egiteko kontuan izandako irizpideak

Gobernu Batzordeak Aurrekontuak egiteko onartu zituen Ildo Nagusiak jasotzen dituzte finantza egoera edo 2007. ekitaldirako aurrakusten diren diru sarrerak, sail ezberdinak aurrekontuak lantzeko jarraitu behar dituzten irizpideak eta aurrekontuak onartzeko jarraituko zen egutegia.

Dokumentu hau oinarri hartuta, 2007. urterako Aurrekontuen Proiektua, esparru bakoitzeko arduradunek egindako proposamenetik jasotako informazioa hartuz egin da.

Lan hori egiterakoan, erraztasunak eman asmoz, esparru bakoitzeko ordezkariak duten alderdien eskueran ondoko hauek utzi dira: zerbitzuak eratzeko edo aldatzeko hartutako erabakiak eta beharrezko gainerako aurrekariak; aurreko urteko Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioa, segidako traktuaren betebeharrak, legezko ezarpenaren edo onartutako konpromisuen bidezkoak.

Proposamenak gastuaren ekonomi izaeraren arabera sailkatu dira, inbertsio jarduerak eta gastu arruntak bereiztuta. Proposatzaileen eta Ogasuneko Informazio Batzordeko lehendakariaren arteko zenbait bileren ondorioz, proposamenei lehentasuna eman zaie giza beharra kontuan izanik, beti ere, aurreikusi den finantz eszenategi barruan.

7.- Aurrekontu Orokorren helburuak eta ekintza-lerro nagusiak

2007an lehen aldiz Zumaiako Udalaren sarrera arruntak 10 milioi € baino gehiago izango dira. 10.529.594 €-ko sarrera arruntak aurreikusten dira. Kopuru honek hiru aldiz biderkatzen ditu 1991. urtean izandakoak.

Sarrera arrunt hauei ez-ohiko sarrerak (kapital sarrerak) eta aurreko urteetan lortutako gerakinak ere gehitzen badizkiegu (1.475.000 €), Zumaiako Udalak (Udala eta Erakunde Autonomoak), 2007. urteko jarduerarako 13.444.360 € izango ditu

kudeatu ahal izateko, (1.521 € zumaiar bakoitzeko), 2006an baino 1,26 milioi euro gehiago.

Zumaiako Udalaren zorra 2007an 337.766 eurotako izango da (38 € biztanleko), kopuru honek sarrera arrunten %3,2a suposatzen du.

2007an 186.500 euro bideratuko dira zorra ordaintzera. Beraz, finantza karga %31,98 gutxituko da, 2006an mailegu-lerro bat bukatu ondoren.

2007ko aurrekontua inbertitzailea da.

Zumaiako Udalak bere aurrekontuaren %40,3 bideratu ahal izango du inbertsiorako. Zehazki esanda, 5,4 milio inbertsioetarakoak izango ditu. Hauei, Zumaia Lantzen bitartez gauzatutako 9,69 milioi erantsiko zaizkio. Beraz, udal inbertsio publikoa guztira 15,13 milioietakoa izango da.

Proposatutako ekintzek eta aurrekontuko zenbakiak argi azaltzen dute 2007ko aurrekontuaren izaera inbertitzailea:

- Udaletxearen bermoldatzearen azken fasea, 1,2 milioi.
- Alondigaren eraberritze proiektua eta obra, guztira 3 milioi, hauetatik 0,5 milioi 2007ko urteari dagozkionak.
- Odieta, E.Gurrutxaga eta San Jose inguruko Eraberritze Ez-ohiko Plana, zenbait ekintzekin:
 - * Lurrazpiko aparkalekua egituratzeko beharrezko desjabetze eta erosketetarako 0,9 milioi.
 - * San Jose kaleko saneamenduaren errozko hobekuntza, 0,26 milioi
 - * Torreberri eraberritzeko lanak 0,8 milioi
 - * Odieta frontoia, plazaren egituraren txertatzea, 0,3 milioi
 - * Odietako etxe berrien eraikuntza, milioi 1
 - * E.Gurrutxaga, Zuloaga eta azpiko parkinaren lanen hasiera, milioi 0,36
- Narrondo ibai gaineko oinezkoen zubia egitea, 0,7 milioi
- Puntanueta 1. faseko falta den urbanizazioa eta Victoriano Arrate parkea, 1,3 milioi.
- Puntanueta 2. faseko urbanizazio proiektua eta 136 etxe publikoena, 3,5 milioi.
- Etxebizitza publiko gehiago egiteko lur-sail erosketara bideratuta, 0,9 milioi.
- PERCO plana: Alde Zaharreko zoladura eta altzaritegi hobekuntza, 0,31 milioi.
- Jadarre auzoko topografikoa eta urbanizazioaren lehenengo fasea 0,5 milioi.
- Haurreskola berri bat, 0,2 milioi
- Ekipamendu publikoetan hobekuntzak eta Kresala ondoko parke aldameneko kaleko zoladura
- **Beste zenbait inbertsio, dirutan txikiagoak baino etorkizunerako garrantzi handia dutenak, adibidez Talaimendi lur babestuen erosketak.**

- Dirulaguntzak ematen jarraituko dugu igogailuak jartzeko eta fatxadak berritzeko, 137.400 euro. Baita ere Parrokiaren egokitze lanetan ere lagunduko dugu 60.000 eurokin.

Udal politikaren “ardatzak” gizarte arloko politika eta etxebizitza publikoarenak dira. Gastu soziala 2007an 2006koarekin alderatuz %4,35 igotzen da. Zumaiako Udalak berezkoak dituen baliabideen %38 bideratzen ditu honetara, hau da, departamendu guztien aurrekontuaren herena baino gehiago izango dira politika sozial garbietara zuzenduak.

Gastu sozialera 5,05 miloi € bideratzen dira, Udalaren gastu hildo garrantzizkoena izanik, administrazioko gastuak bostetik biderkatzen dituelarik.

- San Juan Egoitzara 1,07 miloi bideratuko dira.
- Nazioarteko Kooperazioan eta gizarte arloko irabazi-asmorik gabeko elkarteetara, 108.795 €
- Baliabide ekonomikorik gabeko familientzat 50.000 €
- Larrialdietarako laguntzak 17.165 €an gehituko ditugu iazkoekin alderatuz.
- Brankako klimatizazioan inbertituko da, erabiltzaileen beharretara egokitzeko, 66.500 €
- Urola-kostako Udal Elkarteari 64.828 €emango zaizkio Enplegu Sustapenerako kanpainetako.
- Udal Musika Patronatuari iaz baino 44.000 €gehiago.
- Amaiko Plazan Haurtzaindegi berri bat egin asmo dugu, Aita Marikoaren osagarri, eta horretara bideratzen ditugu 200.000 €
- Alondegiko obrekin hasiko gara, herrian erreferentziazko beste kultur ekipamendu baten aurrengo pausoak emanaz, 500.000 €
- Foronda eta Ubillosen hobekuntzak, 60.000 €
- Kirol elkarteei eta eskoletako kirolari laguntzeko 167.000 €
- Itsasgainekoekin batera estatuko txapelketa infantila egingo dugu, 19.900 €
- 542.557 Turismoa eta herriaren promoziorako.

“Zumaieta Garapen Iraunkorra” ez da slogan bat, Udalbatza honentzat helburu estrategikoa baizik, ditugun erronken artean lehenetakoa. 2007an zehar herrigunean ditugun bi enpresa kutsakorrenak beren jarduera lekuz aldatuko dute. Neurri honek, bere horretan, Zumaiako ingurumenaren eta Narrondo eta Urola hibaien uraren kalitatean hobekuntza dakar berarekin.

Garapen iraunkorrari eskainitako gastu lerroa da, kopuruei begira, apalena. Baina baita iazkoarekin alderatuz igoera haundiena izan duena, %18,59. Aipagarri:

- Ingurumen teknikari baten kontratazioa
- Eskola Agenda 21, 6.000 €
- Bidegorrien hobekuntzan eta bizikletak lotzeko lekuetan, 21.000 €
- Talaimendin lur babestuak erosten jarraitzeko partida.
- Algorri Ezagutza Etxeako erakusketan hobekuntzak eta oinarrizko liburutegiaren egituraketa
- Zuhaitz landaketa eta ordezkaketa.

Herriari kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko apustuarekin jarraitzen dugu. Argiteria publikoa, berdegune, parke eta lorategien mantentze-zerbitzua, saneamendua, ur hornidura, zabor bilketa eta sailkako bilketa, kale-garbiketa, udal hilerriaren mantentzea eta hondartzetako zerbitzuak 2,58 miloi eurotako ordainketa beharko dute. Gainera, uda partean ibaiko garraioaren aldeko apustua mantentzen dugu, 24.900 eurotako gastuarekin.

Bestalde, 2007an baserri bideen garbiketa eta aglomeratu lanak areagotuko dira, horretarako 90.000 euro bideratuz.

Zumaiako Udalak herritarren eta beren administrazio arteko hurbiltzea eta transparentzia indartuko ditu. Horretarako Udal web-gunea sendotuko du, informazio-bide, elkar komunikazio-bide eta zenbait ekintza administratibo erabakitzekeo tresna modura, “e-administrazioa” izenekoaren alde ekinez.

Laburbilduz, 2007ko aurrekontua, aurrkontu inbertitzailea da. Zumaiarren behar eta eskaerei erantzun egokia emateko eta hiru erronka estrategikotan lan egiteko tresnarik eraginkorra (etxebizitza publikotan inbertsioak, gizarte mailako gastua eta garapen iraunkorra).

8.- Aurrekontu propioaren edukia

8.A.- AURREKONTU PROPIOAREN ZENBAKI HANDIAK.

Ondorenean, diru-sarrera eta gastuen laukiak aurkezten ditugu, eurotan adieraziz eta gutzirako diru-sarrera eta gastuen mailari buruzko portzentaiak kalkulatu. Aldi berean, datu hauek, 2006ko luzatutako hasierako aurrekontuak ematen dituen portzentaiekin konparatzen dira.

Sarrerazko atalak	2007 Aurr.	2006 Aurr.	% 2007	% 2006	% 07/06
Zuzenezko Zergak	2.059.770	1.872.531	18,53	20,75	10,00
Zeharkako Zergak	600.000	600.000	5,40	6,65	0,00
Tasak eta beste sarrerak	1.514.385	1.336.3.505	13,63	15,11	11,07
Transferentzi Arruntak	5.152.366	4.563.436	46,36	50,56	12,91
Ondare sarrerak	143.092	154.913	1,29	1,72	-7,63
Sarrera Arruntak Guztira	9.469.613	8.554.385	85,21	94,78	10,70
Kapitalezko Transferentz.	951.266	452.944	8,56	5,02	110,02
Finantz aktiboak	18.000	18.030	0,16	0,20	-0,17
Finantz pasiboak	675.000	0	6,07	0	
Kapitalezko Sarrerak Guzt.	1.644.266	470.974	14,79	5,22	349,12
Guztira	11.113.879	9.025.359	100	100	23,14

Gastuak Atalak	2007 Aurr.	2006 Aurr.	% 2007	% 2006	% 07/06
Pertsonal gastuak	1.820.005	1.671.911	16,38	18,91	8,86
Gastu Arruntak	3.821.164	3.428.687	34,38	38,77	11,45
Transferentzi arruntak	1.336.528	1.111.406	12,02	12,57	20,26
Funtzionamendu gastuak	6.977.697	6.212.004	62,78	70,25	12,33
Intereak	11.500	20.300	0,10	0,23	-43,35
Finantz pasiboak	175.000	253.900	1,57	2,87	-31,08
Finantz karga	186.500	274.200	1,68	3,10	-31,98
Gastu arrunta	7.164.197	6.486.204	64,46	73,35	10,45
Inbertsioak	3.097.993	1.549.800	27,88	17,53	99,90
Kapitalezko transferentziak	833.689	788.803	7,50	8,92	5,69
Finantz aktiboak	18.000	18.030	0,16	0,20	-0,17
Kapitalezko gastuak	3.949.682	2.356.633	35,54	26,65	67,60
Guztira	11.113.879	8.842.837	100	100	25,68
Aurrezki gordina	2.491.916	2.342.381			6,38
Aurrezki gordina %	26,31	27,38			

Aurrezki garbia	2.305.416	2.068.181		11,47
Aurrezki garbia %	24,35	24,18		
Zorpetzea	1,97	3,21		-38,6

8.B.- AURREKONTUAREN AZTERKETA OROKORRA.

Zumaiako Udalaren 2007.urterako aurrekontua 11.113.879 eurotako da, 2006ko hasierako aurrekontua baino %25a gehiago.

Gastuaren sailkapen ekonomikoa kontuan hartuz, “Ondasun arrunten eta zerbitzuen” II. atalburua 3.821.164 eurokin eta aurrekontu osoaren %34,38kin, gastu haundiena da, “Inbertsioen” VI atalburua ondoren datorrelarik 3.097.993 eurokin eta %27,88kin.

Bestalde 2007. urteko aurrekontu honetan, I.go atalburua, “Langileen ordainketak”, portzentaiaren garrantziaren arabera, hirugarren tokian dago, 1.820.005 eurokin eta %16,38kin.

Funtzionamendu gastutako atalburuen joera nagusia igotzekoa da, 2006ko aurrekontuarekin alderatuta, %12,33an.

Bestalde, kapital gastuetako atalburuak igoera handia izan dute, %67,60koa: Inbertsiontako VI. atalburua 2006an luzatutakoarekin alderatuta bikoiztu egiten da, %99,9ko igoera izan du, Kapital Transferentzietako VII. atalburua %5,69an igotzen da eta Finantza Aktiboen Aldaketaren VIII. atalburua 18.000 eurotan mantentzen da.

Diru-sarrerren sailkapen ekonomikoa kontuan hartzen badugu, “Transferentzia arruntak” IV. atalburua da, beste behin ere, sarrerren atalburu nagusiena, aurrekontu osoaren %46,36kin, aurreko urtearekiko %12,91ko igoera izanik.

Diru-sarrera arrunten atalak, %10,70ko igoera orokorra dute. Zuzenezko Zergen I.go atalburuak %10eko igoera du eta Tasa eta bestelako sarrerren III. atalburuak %11,07koa. Bi atal hauen igoerak 2007. urterako onartu diren ordenantza fiskalen ondorio dira. IV. atalak ere igoera handia du, %12,91koa, Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren igoeraren ondorio. Ondare Sarrerren 5. atala jeitsi egiten da, kiroldegiko taberna, Aita Mari zinema eta Odieta frontoiko tabernaren ustiapenak amaitu egiten direlako. Zeharkako Zergen II. atalburua mantendu egiten da 600.000 eurotan.

Kapital diru-sarrerei dagokienez, esan behar da igoera handia izan dutela, alde batetik, Kapitalezko transferentzien VII. atala %110,02an igotzen delako eta bestetik “Finantz pasiboen aldaketaren” atalburua (maileguak) aurten 675.000 eurotako delako, maileguak amortizatzeko gastuetako IX. atalburuan aurrakusten den kopuru baino 500.000 euro gehiago.

8.C.- GASTUAK

Ondoren, azterketa zehatz bat egiten dugu eta 2006ko aurrekontuarekin dauden diferentziak ikusten ditugu:

* 1.go Atalburua.- Langileen ordainketa

<u>AZALPENA</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>	<u>DIFER.</u>
Funtzionarioak	1.230.635	1.118.178	10,06
Langile laboralak	386.025	385.635	0,10
Ordez. Gastuak	119.268	112.595	5,93
Prestakuntza	3.350	3.225	3,88
Aseguruak	11.290	7.800	44,74
Hitzarmen igoerak	69.437	64.656	7,39
	1.820.005	1.692.089	7,56

- Atalburu hau bere osotasunean dago lotuta.
- Igoeraren aurreikuspena %4koa da.
- Ez dira jasotzen oraindik LKS enpresaren bitartez egindako udal antolamendu berria eta lanpostuen balorazio berriak, oraindik onartzeko daude.
- Plantilla organikoan jasotzen den lanpostu berri bakarra Ingurugiro teknikaria da.

* III. Atalburua - Interesak.

Atalburu honek, %43ko jeitsiera du. %3,5eko interesarekin egin dira kalkuloak, 0,3 marjena barne.

* IV. Atalburua - Transferentzia arruntak.

Atalburu honek, %20,26ko igoera izan du. Atal honetako berriak hauek dira:

- Gizarte Larrialdietarako dirulaguntzak 17.165 eurotan igotzen dira eta Nazioarteko Elkartasunerako dirulaguntzak 43.575 eurotan.
- Urola Kosta Udal Elkarteari , zaborraren gestiorako ordaintzen zaion kopurua 28.443 eurotan igotzen da.
- Zumaian izango den piraguismoko estatuko txapelketa infantila 19.900 eurokin lagunduko da.

- Euskaraz aritzen diren komunikabideei ematen zaien dirulaguntza 21.600 eurotan igotzen da.

Dirulaguntza izendunak:

Eudel 1560 €

Udalbide 7.800 €

Urkome 9.113 €

Uda Musikalari diru laguntza 36.000 €

Musika Patronatoari diru laguntza 113.000 €

* VI. Atalburua - Inbertsioak.

Atalburu hau bikoiztu egiten da 2006ko hasierako aurrekontu luzatuarekin alderatuta. Kopurua kontuan hartuz, azpimarra daitezke, udaletxearen birgaiketa 1.200.000 €, 2005-2011 Plan bereziaren partidak, 900.000, 629.688 eta 75.000 eurokin, Alondegia birgaitzeko obra 500.000 €, Jadarreko urbanizazio berriaren lehenengo fasea 500.000 €, PERCOren 2. fasea 311.000 €, bigarren haurtzaindegi bat 200.000 €, baserri bideak aglomeratzea 75.000 € eta Brankan aize egokitua 66.550 €

* VII. Atalburua – Kapital Transferentziak

Atalburu hau 833.689 eurotako da. Igogailuen programarako 68.700 euro aurrikusten dira, 68.700 euro fatxadak berritzeko kanpainarako, 60.000 € parrokiaren egokitze lanetan laguntzeko, 6.601 € Urola Kostako egoitza berriaren likidaziorako eta 629.688 euro Izartu II programa gauzatzeko Zumaia Lantzenen bitartez. Inbertsioetako VI. atalean bezala, lehenengo kreditu aldaketarekin 75.000 eurotako partida berri bat eransten da 2005-2011 Pan Berezirako.

* VIII. Atalburua - Finantza Aktiboen aldaketa.

	GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA		1.475.000,00
	VI. KAP. - Inbertsio errealak		1.400.000,00
1-06-00-622-435-00-02	Alondegiaeren eraberritzea	500.000,00	
1-06-00-600-432-00-01	2005-2011 Plan bereziko erosketak eta desj.	900.000,00	
	VII. KAP. - Kapitalezko transferentziak		75.000,00
1-06-00-733-432-00-02	2005-2011 Plan Berezia	75.000,00	

ERABILITZEA PROPOSATZEN DIREN BALIABIDEAK

	VIII. KAP. - Finantz Aktiboak		1.475.000,00
2-00-00-870-000-00-02	2005ko Altxortegi Gerakina	1.475.000,00	

Konpromisuzko Kredituen aldaketa	2.006	2.007	2.008	2.009
Alondegiaeren eraberritzea	239.900	500.000	1.200.000	1.060.100
2005-2011 Plan bereziaren erosketak eta desj	900.000	900.000		
2005-2011 Plan Berezia	0	75.000	200.000	325.000

18.000 euro aurrakusten dira langileei kontsumorako maileguak emateko.

* IX. Atalburua - Finantza Pasiboen aldaketa.

Atalburu honek %31ko jeitsiera izan du mailegu lerro bat erabat ordaindu delako.

8.D. 2007rako LEHENENGO KREDITU ALDAKETAREN PROPOSAMENA

8.D. SARRERAK

Sarrera arrunten atalburuek 2007ko aurrekontuan, orokorrean, %10,70ko igoera izan dute. 1 eta 3 atalburuak, 2007rako onartu diren ordenantza fiskaletara egokitzen dira. Laugarren atalburuan partida nagusia Foru Fondoarena da eta 2007. ekitaldirako 4.641.300 eurotan aurrakusten da. Ondare sarreren V. atala jeitsi egiten da, kiroldegiko

tabernako, Aita Mari zineko eta Odieta frontoiko tabernako ustiapenak amaitu egin direlako.

Kapital diru-sarrerei dagokienez, esan behar da igoera handia dutela kapitalezko transferentzien VII. atalak %110,02ko igoera duelako. Atal honek, alde batetik Eusko Jaurlaritzatik datozen dirulaguntzak jasotzen ditu, Izartu II programari, PERCO-ren 2. faseari eta Alondegiari dagozkienak eta beste aldetik, Urkome elkartetik jasotzen den ekarpena.

Finantz pasiboen aldetatik datozen sarrerak, hau da, mailegu bidez, aurten 675.000 euro izango dira, maileguak amortizatzeko gastuetako IX. atalburuan aurrikusten den kopuru baino 500.000 euro gehiago. Mailegua eskatzeko erabakia eta kopurua, 2006ko Aurrekontuaren likidazioa egin ondoren hartuko da eta betiere Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legeak agindutakoaren arabera.

Zumaian, 2006ko abenduaren 26an
Alkate/lehendakaria,

Alkateak aurrekontuaren zenbaki potoloak argi gelditzen direla dio eta azalpen gehiagorik gabe alderdien iritziak azaltzeko txanda irekitzen dela.

IZUSTARRI Taldeak 2007ko proposamenari buruz zera dio:

2007ko AURREKONTU PROPOSAMENEI BURUZKO IRITZIAK

PNVek aurkeztutako aurrekontu-proposamenari buruz honako hau azaldu nahi dugu. Gure ustez, lehenetasunak direnetako batzuk ez ditu betetzen, iruditzen zaigu lehenetasun horiek aintzaketat hartu beharrekoak direla eta honako arlo hauetan sailkatzen ditugu:

• **PARTE-HARTZEA:**

Aurrekontuak PNVek egin ditu eta gainontzeko taldeek parte hartzeko aukera gutxi dute. Bakarrik emendakinak edo proposamenak aurkez ditzakegu, baina gero horiek gehienetan ez

dira onartzen. Gure ustez, elkarrizketa eta akordioak bultzatu behar lirateke eta, batez ere, herriari hitza eman. Parte hartzeko demokraziaren bideetan urratsak egiteko aukerak zabaltzeko behar ditugu. Parte-hartzea ez da bultzatu behar Agenda 21ean bakarrik, aurrekontuetan edo batzordeetan ere bai.

- **ENPLEGUA:**

Arlo honetan, aurrekontu osoan partida bakarra dago. Bertan, Mankomunitateari diru kopuru txiki bat ematen zaio (64.828 €). Gure ustez, Udalak berak enplegu-politikan eredu izateko posibilitateak baditu eta horretarako lanpostuak sortzea izango litzateke lehendabiziko betebeharra. Horretarako proposatzen dugu:

4. Kargu publikoen soldatak murriztea:

2006eko aurrekontuetan bezala, gehiegikeria iruditzen zaigu. Udalak 2 liberatu ditu: alkatea (30. mailarekin) eta zinegotzi bat (13. mailarekin). Bien soldatak, Gizarte Segurantzak eta pentsio-fondoak 119.267 € dira Udalarentzat. 2006. urteko proposamenean bi eta erdi liberaturen artean 112.595 € jasotzen zuten; orain, berriz, liberatu bat gutxiagorekin, ia 7.000 € gehiago jasotzen dute.

Ez gaude ados politika honekin, talde politiko bakoitzak Udalari eragiten dion kostua ez datorrelako bat hauteskundeetan eman ziren emaitzekin.

5. Azpikontratazioaren aurkako jarrerari eustea:

II. kapituluko "Kanpoko enpresak egindako lanak" partidaren diru asko gastatzen da. Diru hori Udalean lanpostuak sortzeko erabili beharko litzateke. Diru-kopuru handia erabiltzen da azpikontratatzeko: 2.195.387 € (365.281.661 pta.). Diru horrekin zenbat lanpostu sor daitezke Udalean etxeko etxeko laguntzarako, kale-garbitzarako edo San Juan egoitzarako? Azpimarratzekoa da Branka gizarte-zentroko kudeaketa osorik azpikontratatuta dagoela, baita Gaztetxola eta Ludoteka ere, eta Algorri interpretazio-zentroa ere bai eta, gainera, San Juan egoitzako aurrekontuaren erdia baino gehiago azpikontratatuta dago.

6. Udalak **enplegu publikoaren eskaintza atera** beharko luke bete gabe dituen lanpostuak betetzeko. 2006ko Zumaiako Udaleko lanpostuen zerrendan 13 lanpostu azaltzen dira bete gabe (ingurugiro-teknikariarena kontuan hartu gabe).

- **INBERTSIOAK:**

Guztien artean Udaletxearen berrikuntza nabarmentzen da. Proiektu hau, 1.200.000 €-koa, gure ustez, ez da lehentasun bat eta gutxiago oraindik inbertsioen artean handiena izateko. Gainera, gero likidazioak egiten direnean, inbertsio horiek ez dira gauzatzen eta, horren ondorioz, defizita gerakin bihurtzen da.

2004, 2005 eta 2006ko aurrekontuen enmendaketan esan genuen bezala, iruditzen zaigu haurtzaindegia egiteko lokal batean inbertitzeak lehentasun handiagoa duela Udaletxearenak baino, eta proposatu genuen lekuren bat ere (Eroski zaharra).

Gaur egun, ikusi da haurtzaindegia txikia geratzen ari dela eta ez dela gai eskaera guztiak betetzeko. 200.000 €-ko partida bat dago, baina ez dakigu lokalen bat erosteko den edo beste zerbaiterako.

Bestalde, 2. inbertsio garrantzitsuena aurrekontu hauetan Oxforden berrikuntzarena da, 500.000 €-rekin, baina ez dakigu ezertxo ere proiektu honekin egin nahi denari buruz eta nahiko genuke adostasun bat egotea herriko talde eta eragile kulturalekin.

Laburbilduz: aurrekontu hauek ez dira guk egindakoak eta ez daude eginda ezker ikuspegitik. Izustarrik aurrekontuak beste era batera egingo litzuzke.

Diru-sarrerak bermatuta, gastuetan arriskatu egin behar da eta ez bakarrik sarrerak eta gastuak berdindu, zeren gastuak %100ean ez badira exekutatzeko beti dirutza geldituko da gerakin, eta diru hori dagokion urtean gastatu behar da eta ez hurrengoetan.

Azpikontratazioari buruz ere konpromisoak hartzen joan behar da Udala, pribatizazioaren lehentasuna murriztuz eta enplegu publikoaren alde.

Beraz, zera eskatzen dugu:

455.10 PROGRAMA: EUSKARA

48.481.05	<i>Urola Kostako Hitz</i> a-ri diru-laguntza	26.400 €
48.481.06	<i>Baleike</i> -ri diru-laguntza	13.000 €

FINANTZIATZIOA:

455.10 PROGRAMA: EUSKARA

48.481.02	Euskaraz aritzen diren komunikabideei	-25.000 €
-----------	---------------------------------------	-----------

190 PROGRAMA: BESTELAKO GASTUAK ETA EZUSTEKOAK

22.226.99	Kreditu globala	-14.400 €
-----------	-----------------	-----------

Bestalde, esan behar da Udala ez dela gai zerbitzu guztiak euskaraz emateko. Besteei konpromisoak eskatu beharrean (Euskara Batzordeko asistentziak etab.) hobeto egingo luke hirigintzako proiektuak, mugikortasun-plana edo Udalaren berrantolaketaren txostenak euskaraz ere egitea, eta ez erdara hutsean.

2007ko AURREKONTUEI 3. PROPOSAMENA

- **NAZIO-ERAIKUNTZA:**

Nazio-erakuntzari begira dauden proiektuetara dirua bideratu beharko litzateke "nazio-erakuntzarako proiektuak" izenpean. Aurrekontuak nazio-erakuntzaren barruan kokatu behar ditugu.

Udalbiltzara bideratzen den diru-kopurua alde bateko Udalbiltzara bakarrik bideratzen da, hau da, PNV eta EAren Udalbidera.

Beraz, eta zoritxarrez bi Udalbiltza daudenez, eskatzen dugu Ezker Abertzaleko Udalbiltzari ere diru kopuru bat ematea:

121.00 PROGRAMA: ADMINISTRAZIO OROKORRA

41.419.03	Udalbiltzak garatzeko proiektuak	4.000 €
-----------	----------------------------------	---------

FINANTZIATZIOA:

190 PROGRAMA: BESTELAKO GASTUAK ETA EZUSTEKOAK

22.226.99	Kreditu globala	-4.000 €
-----------	-----------------	----------

2007ko AURREKONTUEI 4. PROPOSAMENA

- **ETXEBIZITZA:**

Zumaiarren betebeharrak bete ahal izateko proposatzen dugu etxebizitza hutsen azterketa egin behar dela eta hutsik dauden horietatik ahalik eta ehuneko handiena alokairuan ipini. Azterketa bat egitea eskatzen dugu "etxebizitza hutsa" zer den definitzeko eta Zumaian zenbat dauden jakiteko. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak berak ere zera esaten du: "Beharrezkoa da, esate baterako, hutsik dauden etxebizitzetzi zerga-presio handiagoo ezartzea, okupatu gabe dauden etxebizitza horiek alokatu ahal izan daitezen". Halaber, uste dugu horrekin lotuta, langabetuentzat onura fiskalak jarri beharko liratekeela.

Beraz, eskatzen dugu etxebizitza hutsen azterketa egitea, definitu eta zenbatu eta gero alokatu ahal izateko:

PROGRAMA: Egokien dagoen programa baten txertatu beharko litzateke edo beste berri bat ireki.

Etxebizitza hutsen azterketa 18.000 €

FINANTZIATZIOA:

190 PROGRAMA: BESTELAKO GASTUAK ETA EZUSTEKOAK

22.226.99 Kreditu globala -18.000 €

2007ko AURREKONTUEI 5. PROPOSAMENA

- **EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK:**

Ondo egongo litzateke emakumeen eskubideek defendatzeko aurrekontuetan partida berezi bat eratzea. Urteak aurrera doazela tratu txarrak gora doaz, hildakoak ere bai, eta zer esanik ez dago emakumeen langabeziari buruz edo banatutako bikoteen pentsioak ez ordaintzeari buruz. Badakigu Zumaian ere tratu txarren kasu bat baino gehiago egon dela eta aurrekontuetan partida jarriz gero, behintzat, ekonomikoki diru-laguntza bermatuta egongo litzateke.

Beraz, emakumeen eskubideek defendatzeko partida bat eratzea eskatzen dugu:

313.90 PROGRAMAZERBITZU OROKORRAK – GIZARTE EKINTZA

48.480.05 Emakumeen eskubideak defendatzeko diru-laguntza 12.000 €

FINANTZIATZIOA:

190 PROGRAMA: BESTELAKO GASTUAK ETA EZUSTEKOAK

22.226.99 Kreditu globala -12.000 €

2007ko AURREKONTUEI 6. PROPOSAMENA

- **PRESOEN SAKABANAKETA:**

Gure proposamena da euskal presoen senideei diru-laguntza ematea, ahal den neurrian, gutxienez ekonomikoki sakabanaketari aurre egin ahal izateko. Gogoratu behar da Patxi Aristi zumaiarra Topasen (Salamanca) dagoela preso. Sakabanaketak presoen familietan hainbat hildako, istripu eta kostu ekonomiko eragiten ditu.

PNVek gobernatzeko dituen beste udal batzuetan laguntza hauek onartuta daude. Halaber, Zumaiako Udala behin baino gehiagotan azaldu da sakabanaketaren aurka.

Datuetara joanez gero harrigarriak dira: dispertsioak preso, familiakoen eta lagunen artean 36 hildako eragin ditu.

Bataz besteko bat eginez gero, euskal presoak Euskal Herritik 724 kilometrotara daude eta beraien familiek kondenatuta daude hileroko 1.728,79 €-ko "isuna" ordaintzera.

Beraz, Patxi Aristiren familia eta lagunek hileroko 898 € gastatzen dutenez bidaietan eta mantenuan, bisita egin ahal izateko, honako diru-laguntza eskatzen dugu beraientzat:

313.90 PROGRAMAZERBITZU OROKORRAK – GIZARTE EKINTZA

48.480.06 Euskal presoen famili eta lagunentzat dirulaguntzak 10.776 €

FINANTZIATZIOA:

190 PROGRAMA: BESTELAKO GASTUAK ETA EZUSTEKOAK

22.226.99 Kreditu globala -10.776 €

2007ko AURREKONTUEI 7. PROPOSAMENA

18/98 Makrosumarioak eragiten dituen kalte ekonomikoak direla eta, eratu den plataformari diruz laguntzea eta horretarako aurrekontuetan 30.000 €-ko partida bat sartzea.

2007ko AURREKONTUEI 8. PROPOSAMENA

Oxford-en egingo diren birgaitze lanetako proiektua definitzeko orduan, herriko eragile sozialen iritzia kontuan hartzea, eta horretarako konpromiso politiko publiko bat hartuko du gure alkateak, horretarako beharrezkoak diren tresnak eta foroak sortzeko.

Onartu ez direnak, gure ildo politikoa direlako ez omen dira onartu, beroientzat ez omen dira onargarriak.

-Zuek ildo politikoa izateko eskubidea baduzue, Udalbideri diruz laguntzen diozue. Bost zinegotziren 7.800 €z diruz laguntzen diozue; Udalbiltzak Zumaiari hiru zinegotzi ditu, €k aldiz 0.

-Patxi Aristiren egoera ere ildo politikotzat hartzen duzue. Gure ustez, bere familia eta ingurukoek bera ikusi ahal izateko egin behar dituzten milaka km-ek ez dute gure ildo politikorekin zer ikusirik, agian PNV-ren ildo politikorekin zer ikusi gehiago edukiko du, beroiek baitira dispertsioaren diseinatzaileetako bat. Dispertsioa martxan jartzeko PNVk lan asko egin zuen, baina berarekin bukatzeko ez du ezer egin.

-Eta 18/98 sumariopean epaiturik izaten hari direnekiko ere elkartasun gutxi; gure uztez, Estatua eta botere publikoen injustiziak pairatzen dutenekiko elkartasun gutxi izan du PNVk betidanik; hori bai: Atutxa, Agirre edo Ibarretxe baduzu abizena, orduan hori beste kontu bat da.

Hala ere bost proposamen txertatzea lortu dugu, eta beste urteetan ez bezala negoziaketaldi bat ere izan dugu aurten PNV eta Izustarriren artean. Bide berri hau guretzat, behintzat ,positiboa eta interesgarria iruditzen zaigu, eta hurrengo urteetan ere bide honetatik oraindik urrutiago iristea gustatuko litzaiguke. Bide berri honi ateak irekiak uzteko intentzioarekin, Aurrekontu Proposamenean abstenitu egingo gara.

Alkateak zera erantzuten du EAJ pozik dagoela; IZUSTARRI-ren gaurko abstentzioa positibotzat jotzen dutela. Proposamenak aurkeztu zituztela eta eztabaidatu ondoren zenbait onartu egin zirela. Proposamenak onartu zirenean ez zekitela zein erantzun jasoko zuten, baina adostasun bat zegoenez onartu egin zirela.

Zenbait proposamen izaera politikoa zutenak ez zirela onartu. Adibidez 18/98 sumarioa, ez dutela salatzen egozten zaiela, baina IZUSTARRI ere ez dela nabarmentzen, Atutxa, Ibarretxe, edo Agirre kasuen salataile sutsuenaren gisan.

Euskararen atalari dagokionez, zera adierazi behar dela, euskarak euskal herriko lurralde guztietan ez duela egoera berdina pairatzen. Zenbait lurraldetan babesik gabe dagoela eta Udalbidek lurralde horietara bideratzen duela laguntza.

Udalbiltzaren sorrera beste egoera politiko batean izan zela, bake giroa zegoenean, gero egoera hori apurto egin zela eta Udalbiltza ere bai.

Enpleguari dagokionean, udalak Mankomunitateari ematen dio dirulaguntza, arrazoiak enplegu politikak sustatzeko eraginkortasun handiago duelako eta diru iturri gehiago.

Estatuko azken datuen arabera, langabezia % 2,7-an dagoela. Orain 15 urteko datuekin alderatuz gero, ez zutela sinestuko maila baju hauetara iritsiko ziranik. Beraz egoera nabarmen hobegotu dela.

Udala bere beharrak asetzen joateko adinako lanpostuen eskaintza publikoa ateratzen joango dela aurtengo urtean.

Proiektuen atalean, adierazi du udalak, proiektu teknikoak idazteko lehiaketa publikoa deitu aurretik, herriko talde eta eragile gehientsuenekin egon dela hauek proposatutako ideiak kontuan hartu direlarik.

Inbertsioen atalean izendatutako gastuak aurrekontuen ekitaldiaren barruan ejekutatzen ez direnean, hurrengo ekitaldian txertatzen dira.

Auzoeri dagokienean, Jadarrerako partida garrantzitsu bat sartzen dela. Auzoen beharrei poliki poliki erantzunez. Basadirekin hasi zirela, eta Jadarrereri ere iritsi zaiola txanda.

Laburbilduz adostasunerako urratsak emanez bide berriak ireki direla eta ados.

PSOE-ren ordezkariak zera dio 2007-ko aurrekontuak ez direla beraien talde politikoarenak, gobernuan dagoen talde politikoarenak baizik, gobernuko taldearen ardura delako, aurrekontuak prestatzea.

Ez direla buru belarri enmendakinetan sartu. Gure ahalegina besteak beste Odieta eta gisa horretako proiektuak bultzatzea izan dala. Eta ez soilik hirigintza ikuspegitik hitzeginda, proiektu horiek gauzatzeko ekonomikoki aurrekontuetan islada izan dezaten lagunduta. Honi deitzen zaio gure iritzian eraikuntza nazionala. Lan egitea eta proiektuak bideratzea. Proiektu hauek ekonomikoki laguntzen ez badira ez da eraikuntza nazionalik egiten.

Aurrekontu honek Jadarrerako 500.000 €ko dirulaguntza aurrikusten du. Beraiek ados daudela eta apoiatu egiten dutela diote. Izan ere Jadarrera bixitan joan, bizilagunekin egon elkartasuna adierazi eta gero aurrekontuetan aurka botatuaz ez ahalbidetu, koerentea ez dela ulertzen bait dute.

Aldiz Udalbideren partida ere aurrekontuetan aurrikusten dela eta ez datozela bat. Baina bata bestearengatik 2007ko aurrekontuen alde bozkatuko dutela.

IZUSTARRI-k PSOE-ri erantzunez dio beraien abstentzioak Jadarreko beharrak asetzeko aukera eskaintzen duela, hau da ahalbideratu egiten duela Jadarreko iharduera. Gaineratuaz Jadarrekoa, bertako bizilagunen garaipen bat izan dela.

PSOE-k dio beraien jarduteko era hori dela eta udaleko kudeaketak zentzurik badu horrela izan behar duela. Seguraski gobernuan PSOE balego edo, EB edo EA, edo IZUSTARRI, aurrekontuak beste batzuk izango liritezkeela, baina hau da daukaguna eta proposamen hau bozkatu behar da.

IZUSTARRI-k galdetzen du ea PSOE-k ezezkoa bozkatuko lukeen Jadarrerik ez balitz sartu eta Udalbide bai. Beraiei demagogia iruditzen zaiela.

Alkateak dio eskertu egiten duela PSOE-ren aldeko bozka eta gaineratzen du ez dela erraza alderdi guztiekin adostasunetara iristea. Alderdi bakoitzak bere ikuspuntua duelako.

Ondoren, E.A-k 2007ko aurrekontuaeri buruzko iritzia azaltzen du.

Aurrekontuak urtealdi jakin baterako onartzen diren kontuak dira, zeintzuetan zein inbertsio , gastu etb azaltzen diren. Partida horiek zertan eta zertarako bideratzen diren, udaleko zinegotziak aukeratzen ditugu. Beraz, norabide politiko jakin batera bideraturiko kontuak ditugu. Udalean nork duen indar politiko haundinak erabakiko du zer eta zertarako bideratzen diren. Aurrekontuak partida asko dituzte bere baitan eta zer esanik ez dago, horietariko asko sentsibilitate politiko ezberdinekoak konpartituak direla.

Beraz, aurrenengo momentutik garbi uztera gatoz, aurkeztu zaizkigun aurrekontu orokor horietatik partida asko eta asko gure gain egiten ditugula eta zinez uste dugula bete beharrekoak direla. Baina era berean baita beste zenbait partidarekin ezadostasun garbi bat adierazi nahi dugu. Alegia, aurrekontu orokorrei baiezko botua ez emateak ez duela adierazi nahi aurrekontuan agertzen diren partida guztiei baiezkoa ematen ez gerarik ario Eta beraz beste inork ez dezala erabili gure jarrera hori ulertarazteko goinontzekooi. Gure jarrera gurea delako, ez beste inorena eta ematen ditugun argudioak gureak direlako eta bere osotasunean adierazten ditugulako.

Baina aurrekontuak, gestio edo kudeaketarako beharrezkoak diren zenbaki multzo ezberdinen batuketatik haratago, lehen adierazi dudan ekimen politiko jakin baten adierazle dira. Eta hain zuzen ere, guk hemen nahiko genuke zentratu.

Ilusioz ekin genion legealdi berriari. EA oposiziotik zetorren alderdi bat zen. Legealdi hontarako ordeza EAJ-rekin aurreakordio batera iritsi ginen. Kostatako akordioa baina akordioa. Trabak ez ziren edozein nolakoak izan. Baina batez ere bizpahiru gaietan zentratu ziren: Zumaia Lantzenen papera, Zerga eta Tasei ikuspegi ezberdinak eta baita ere udaleko langileriaren egoera ere.

Zumaia Lantzeneri dagokionez, legealdian zehar bere funtzionamendua berraztertu eta ondo bageritzon bere horretan mantendu edo aldatu behar zenaren ustetara iristen baginen aldatzeko konpromezua hartuz. Legaldia aurrera joan zen, baina berrazterketa ez zen legealdiarekin batera aurrera joan. Eta gure kezkek, betiko kezkek, areagotzen joan zitzaizkigun. Kontua da, EAJ-k 1991 urtean konkurtsorik gabe Zumaia Lantzen kudeatzeko harturiko enpresak bere horretan jarraitzen duela 15 urteren ondoren. Zumaia Lantzeneri gero eta lan gehiago ematen zaiola, eta beraz ZL- kudeatzen duen Esarbek kudeaketa horregatik eramandako ehunekoak ere gehiago direla. Hori adierazteagatik EAJ-k kaleratu gintuen gobenutik. Eta gaur oraindik galdetzen diogu gure buruari, eta ze interes du ba EAJ-k hainbeste lan ZL-eri emateko? Zergatik 15 urteren ondoren ez da ZL kudeatzeko konkurtso publikorik egin?

Zerga eta Tasei dagokienez, aurten zorionez aurrenengo aldiz (hauteskundeak datozelako edo)

KPI-a igotzea bakarrik erabaki duo Zorionekoak gu danok.

Udaletxeko langileriari dagokionez, posturik garratzitsuenak oraindik ere plaza fJjorik gabe daude. Hainbeste urteren ondoren idazkari edo kontuhartzaile postu garrantzitsuak plazara atera gabe daude. Baina Idazkaritza eta Kontuhartzaitza ez al dira ba udal bateko euskarri? Guk dudarik ez daukagu, udala ondo jokatzeko ari denaren zigilu dira.

Zumaiako Paolari buruz esaten de alderdi politikoaren informazioa bere horretan argitaratu edo ez argitaratu, mozketekin argitaratu edo moztu gabe, alderdi politiko jakin baten esku gelditzen dela. Eta informazio orokorra nola ematen den ere berdin.

Forma aldetik askotan gobernuko alderdiak prepotentziaz jokatzeko duela. Adibidez, forma akatsak zirela eta igande batetarako Plenoa deitu zenekoa.

Ilusioz hasi zirela baina ilusioak ito zaizkiela.

PSOE-ri zuzenduaz dio, Azpeitian sozialistak aurka bozkatu dutela aurrekontuetan Udalbideren alde izendatu den partidagatik.

Guzti honengatik EA-k 2007ko aurrekontu proposamenari ezezko botoa emango diola.

Alkateak EA-ri zuzenduaz dio elkarren artean negoziaketak luzeak izan zirela. Punturik eztabaidatuena Zumaia Lantzen izan zelarik. Negoziaketetan inondik ere ez zela zalantzan jartzen babes ofizialeko etxebizitzak eta lurzoru industrialak sustatzeko Zumaia Lantzenen formula berraztertu behar zenik. Zalantzan jartzen zena kooperatiben figura zen. Eta zentzu horretan hartutako konpromezua bete dugu.

Idazkari eta Kontuhartzaile lanpostuak interinoekin daude beteta horraino ados daudela, baina gezur potoloa dela Udalak ez dituela deialdi publikora ateratzen. Hasteko bere eskumena ez delako. Habilitazio Nazionaleko postuak izanik Diputazioari dagokio postu hauek jabetzan betetzeko lehiaketak deitzea. Udalak egingo ez duena interinoki betetzeko deialdi publiko bat.

Paolari buruz esandakoak beste gezur potolo bat direla, udalak alderdi politiko baten idatzia moztu zuenean erabakitako luzeran sartzen ez zelako izan zela.

Udal Idazkariak hitza eskatzen du Idazkari eta Kontuhartzaile lanpostuen eraentza juridikoaren berri emateko sortu den eztabaidan argitzeko lagungarri izango delakoan.

Bi lanpostu hauek ez dute udaleko beste lanpostuen eraentza juridiko berdina. Lanpostu hauek habilitazio nazionalekoak dira. Habilitaziokoak

izateak zera suposatzen du, plaza jabetzan izateko aurrez Estatuko Administrazioak deitutako oposaketak gainditu behar direla eta ondoren Diputaziak deitutako lehiaketan parte hartu eta merituen baloraketa gainditurik plaza horretarako izendatua izan.

Zumaiako Udalak Diputazioak deitutako lehiaketetan parte hartzen du baina orain arte ez da plazarik bete. Udalak ez dauka eskumenik bere kabuz plaza horiek jabetzan betetzeko deialdiak deitzeko.

Baita ere adierazi gaur egun interinitatean plaza horiek betetzen ditugunok oposaketa lehiaketa gainditu ondoren izan ginala izendatuak.

EZKER BATUA BERDEAK alderdiak ondorengo botu esplikazioa irakurtzen du:

Ezker Batua-Berdeak no va a aprobar los presupuestos. Lo cual no quiere decir que este grupo municipal esté en contra de los proyectos que en ellos se incluyen como pueden ser, las obras de la parroquia, el proyecto de la Alhóndiga , Jadarre, etc.

Nuestra oposición a este Presupuesto viene dado por la actitud del gobierno municipal, que pese a sus buenas palabras, en la practica es incapaz de asumir las diferentes opiniones o criterios sobre diversos temas.

Desde Ezker Batua-Berdeak venimos reclamando mecanismos de participación ciudadana desde comienzo de legislatura, entonces para las monjaxarras (que a día de hoy aún no sabemos a que se destinará) y actualmente para el proyecto de la plaza del pueblo . El gobierno municipal cree que los/las zumaiarras son incapaces de calibrar proyectos de estas características.

Creemos que sería bueno abrir estos mecanismos, porque permitirían detectar necesidades más allá de los 3000 euros que se plantean para la compra de una mesa de billar para el centro social. Nos resulta curioso que se destinen 38000 euros a cooperación internacional que está muy bien, y para jardinería 25000. .. Sin duda, los/las concejales de este Ayuntamiento realizamos la labor de detectar esas necesidades pero debería existir un mecanismo de información y de contraste de las mismas con la población.

¿Se contará con los/las vecinos/as de Jadarre para saber cómo quieren que sea urbanizado? ¿Qué tiene esto de malo? ¿No creen que esto aportaría nuevas ideas y permitiría enriquecer el proyecto? ¿Por qué piensan que no es posible que los zumaiarras aporten ideas frescas al presupuesto municipal o a cualquier proyecto de cierta envergadura que va a condicionar el futuro de los mismos?

Es el sistema de trabajo lo que provoca nuestro rechazo más que los proyectos en si mismos. Además, está la nula pretensión del equipo de gobierno a la hora de ajustar la plantilla laboral del Ayuntamiento.

Realmente este sistema de vulgarización del servicio público nos enfrenta a todo un proyecto falsamente neoliberal que impide totalmente nuestro concurso.

EB-Berdeak dio ez duela 2007ko aurrekonturik onartuko baina honek ez duela esan nahi aurrekontuen osotasunaren aurka daudenik.

Alderdien eginkizuna herritarra eta udalaren arteko zubi lana egitea dela, eta aberasgarria dela iruditzen zaiela herritarren partaidetza bultzatzea proiektu garrantzitsuetan ez bakarrik zaharretxerako billarreko mahai bat erosterakoan.

Alkateak zera erantzuten dio herritarren partaidetza mekanismoeri dagokionez, gobernu kideak ez direla extralurtarrak herritarrek beraiekin hitzegiten dutela, idatziak jasotzen dituztela, e-mail-ak, bilerak izaten dituztela ... Eta proiektu garrantzitsuetan herritarren partaidetza bermatuaz besteak beste eragile potikoeri luzaturiko parte hartzeetan, kasualki EB-Berdeak-ek ez duela parterik hartu. Eta une honetan bozkaten dena billarreko mahai bat baino zerbait gehiago dela. Herritarren partaidetzari dagokionez badirudiela EB-Berdeak daukala gauzen neurri egokia.

EB-Berdeak-eko ordezkariak dio, zumaiarrek ezertxoere esaterik ez dela nahi. Badirudi hori dela helburua. Ez dela erabakitzeke eskubiderik onartzen.

Eztabaidan Azpeitian aurrekontuetan udalbiderentzat diru izendapena jarri delako PSOE-k aurka bozkatu duela aipatu denez eta Zumaiian egoera berdinean nolatan alde bozkaten duen galderari erantzunez PSOE-k dio, Zumaiako Udaletzeko aurrekontuetan lehentasuna Jadarreko berurbanizazioari ematen diotela eta lan hauek atera daitezzen bermatzeko bozkaten dutela alde.

Bozketa eginik,

Aldeko botuak: 6 (5 EAJ eta 1 PSOE)
Aurkako botuak : 3 (2 EA eta 1 EB-BERDEAK).
Abstentzioak: 3 IZUSTARRI.

ERABAKITZEN DA:

1.-Haserako Onarpena ematea Gorporazioaren 2.007ko ekitaldirako Udalaren Aurrekontu bakarrari eta Pertsonalaren Plantila Organikoari.

2.-Akordio hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jendaurreko 15 eguneko epe bat zabalduaz, interesatuak aztertu ditzan eta Udal Plenoaren aurrean dagokion erreklamazioak aurkeztu, 39/1.988ko abenduak 28ko Hazienda Lokalak Arautzen dituen Legeko 150,1 art.ak dioenaren arabera.

Aipatu epea iraganik,eta aurkako iritzirik aurkeztuko ez balitz, Aurrekontua behin betikoz onarturik gelditzen dela kontsideratuko da akordio

	GASTU PARTIDEN GEHIKUNTZA		1.475.000,00
	VI. KAP. - Inbertsio errealak		1.400.000,00
1-06-00-622-435-00-02	Alondegiaeren eraberritzea	500.000,00	
1-06-00-600-432-00-01	2005-2011 Plan bereziko erosketak eta desj.	900.000,00	
	VII. KAP. - Kapitalezko transferentziak		75.000,00
1-06-00-733-432-00-02	2005-2011 Plan Berezia	75.000,00	
	ERABILITZEA PROPOSATZEN DIREN BALIABIDEAK		
	VIII. KAP. - Finantz Aktiboak		1.475.000,00
2-00-00-870-000-00-02	2005ko Altxortegi Gerakina	1.475.000,00	

Konpromisuzko Kredituen aldaketa	2.006	2.007	2.008	2.009
Alondegiaeren eraberritzea	239.900	500.000	1.200.000	1.060.100
2005-2011 Plan bereziaren erosketak eta desj	900.000	900.000		
2005-2011 Plan Berezia	0	75.000	200.000	325.000

berriren beharrik gabe. Alegazioak aurkeztuko balira, Udalbatza osoak hilabeteko epea izango du hauek ebatzeko.

3.- 2.007-ko Aurrekontua behin betikoz onartzen denean, Atalburukako laburpen bidez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Plantila Organikoarekin batean, 39/1.988ko abenduak 28ko Hazienda Lokalak arautzen dituen Legeko 150,3 artikulok dioen bezala.

3.- 2007KO LEHENGO KREDITU ALDAKETA.

Hazienda Batzorde buruak Aurrekontuetako memoriaren 13. orrialdea irakurtzen du:

IZUSTARRI-tik zera adierazten dute 2007ko ekitaldiko aurrekontuetan 2006ko gerakina sartu dela, beste ekitaldi batzuetan aldiz ez da horrelakorik egin.

Alkatesak erantzuten du betiko eztabaida dela. 2007ko ekitaldian diru sarrera gehiago izango dela, baina helburu jakin bati lotuak, aurrikusitako inbertsioak ez direlako ekitaldi barruan ejekutatatu. Hoberena ekitaldi barruan ejekutatzea litzatekeela, baina lanak eta ondorioz lan ziurtapenak atzteratu egiten direla.

IZUSTARRIk azpimarratzen du, Alondegiko proiektua dela eta herriko kultur talde eragileekin elkarlanean aritzeko konpromezua hartu zela.

EAJ-ak erantzuten du horrela dihardutela.

Bozketa eginik,

Aldeko botuak: 6 (5 EAJ eta 1 PSOE)

Aurkako botuak : 0

Abstentzioak: 6 (3 IZUSTARRI, 2 EA eta 1 EB-BERDEAK)

ERABAKITZEN DA:

1.- Udaletxeko 2007ko 1.go zenbakidun kreditu-aldaketaren proposamena onartzea.

2.- Udaletxeko lehenengo zenbakidun Kreditu Aldaketa jendaurreko agerraldian jarri hamabost eguneko epean, oharpenak aurkez daitezzen helburuaz. Oharpenik aurkeztuko ez balitz, akordio honek, behin betiko izaera jasoko luke, espediente honek aurrekontu orokorra onartzeko eman beharreko izapidetza izan beharko duelarik.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko bederatzia direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, fede eman dut.

ALKATEA

IDAZKARIA